

SANFERMINAK

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS

PASAI ANTXXO 2022

Argazkia: Olatz Mitxelena

Erraza litzateke Pasai Antxoko San Fermin Jaiak Lesakakoekin edo Iruñekoekin alderatzea. Baina ez da zilegi. Izenburu beraren-pean antolatzen diren festak izan arren, bakoitzak bere izaera propioa du. Antxokoek badute nortasuna, handia gainera. Oarsoaldeko festarik jendetsuenetakoak dira, ez bakarrik antxotarrek bere egiten dituztelako kaleak, inguruko herrietako bisitari asko eta asko izaten ditu.

Berritasunik bada aurtengo sanferminetan 2019koekin alderatuta. Bi txosna eremu izango dira: Antxoko Topagunearena, eta Papineko Gazteakena, azken hau berria; herriko hainbat gazte kuadrilla bildu, eta jaietan eragile izatea erabaki dute, haien egitekoa festa arotik harago ere irudikatzen dutelarik. Horiez gain, dozenaka dira egitarauaren barruko ekitaldiak, Jai Batzordeko partaide diren eragileek mimosoz prestatu dituztenak.

Bada hutsune bat. Juanjo Bujandarena. Herriko festetan eta beste hainbat ekitalditan suziriak botatzeko ardura zuen herritarra iaz zendu zen. Jaiak birtartean hainbat aitortza jasoko ditu. X



ANTXOKO JAIK 2022

OLAIA GERENDIAIN

Lehen aldia da Antxoko kartel lehiaketan parte hartzen duzuna?

Bai. Egun batean Azokan nintzen zerbait hartzen, eta Pasaia Itsas Festibalearen kartel bat ikusi nuen; oso polita iruditu zitzaidan, eta gogoia piztu zitzaidan halako zerbait egiteko, azken bost hilabeteetan, praktiketan egin behar izan ditudan diseinuak oso lotuta egon baitira enpresari eta produktuari.

Etxera joan eta udalaren webgunean ikusi nuen kartel lehiaketan parte hartzeko epea zabalik zegoela, eta izena ematea erabaki nuen. Bi aste pasa nituen zer egin pentsatzen! Egungo kartelaren bozetoa eskuz egin nuen, eta gero digitalera pasa. Aste batzuk pasata deitu ninduten, esanez irabazi nuela.

Irabaztea beti da izugarritzko poztasuna. Lehen gauza egin nuena nire aitari deitzea izan zen, kontatzeko! Baina tira, izena eman nuen asko gustatzen zaidalako halakoak egitea, ez irabazteko in tentzioekin. Aspaldi ez nuen nire estiloko zerbait, disfrutatze soilik, egiten.



HITZA

«Aspaldi ez nuen nire estiloko zerbait, disfrutatze soilik, egiten»

LEIRE CORREYERO GOMEZ

KARTEL LEHIAKETAN IRABAZLEA

2022ko sanferminetako kartel lehiaketa irabazi du antxotarrak. Diseinuaren ageriko nahiz ezkutuko esanahiez mintzatu da.

Zer ikus daiteke kartelean?

Egoera dibertigarri bat, jai girokoa, alaia, sanferminetako elementu mitikoekin uztartuta. Hor da Antxoko San Fermin eliza, txupinazoaren suziriekin atzean, erraldoiak eta buruhandiak...

Detailtxo asko ere baditu kartelak. Antxoko erreka egiteaz gain, eta agian benetan dena baino apur bat politago [barrez], zenbait ahate ere sartu nituen, *Fermintxo*, *Antxoko Errekako Ahatea* Facebookeko orriari erreferentzia egiteko, baita errekako zubia... Noski, sanferminetako arropa zapiarekin, danborrada...

Koloreei dagokienez, Antxoko festekin beti pentsatzen dugu zurigorrian, baina kartela dibertigarriagoa egin nahi nuen, horregatik sartu nituen kolore gehiago.

Zein esanahi du zuretzat?

Niretzako kartelak, eta jaiek, orokorrean, irudikatzen dute maite dituzun horiekin pasatzeko dituzun jaiegunak.

Garrantzitsua da ongi pasatzea gorroto deliturik egon gabe, jazarpen eta erasorik gabe. Antxon nik uste oso kontuan hartzen dela feminismoa, LGTBI+ kolektiboarekin batera.

Kartela bukatzen ari nintzela, emakumeen presentzia nahiz kolektiboarena burura etorri zitzaizkidan, eta nahiz eta berandu zen horiek gehitzeko [barrez], nolabait jaso nahi izan nituen. Ortzadar bat sartu nuen horregatik. ✕

[Elkarriketa osoa eta kartela, *oarso-aldea.hitza.eus* webgunean].





**Ongi pasa
Sanferminak!**

Axular Plaza, 3. Pasai Antxo
Tel.: 943 34 05 42



Garbiketaren profesionalak
943 260 860

Gora Sanferminak!

Txatxamendi kalea 43, 110 poligonoa. Lezo
info@limpiezastxindoki.com
www.limpiezastxindoki.com

Papinen sorturikoa antxotarrei buelatzeko

Antxok gunee berri bat izango du datozen sanferminetan, Ibaiondoko zabalgunean: Papineko Gazteriaren txosna. 150etik gora gazteek bat egin dute, jaiekin lortutako dirua urtean zehar inbertitzeko.

OLAIA GERENDIAIN

Pandemiak utzi du ezer onik Antxon. «Ezin genuen ezer egin, ez non elkartu, eta Papinera [Molinao aldean dagoen parajea] joaten hasi ginen hainbat gazte», egin du atzera begirakoa Peru Montalvok (Antxo, 2004). Hura da sortu berri den Papineko Gazteria herri mugimenduaren kideetako bat. Papinera zergatik galdetuta, «bizilagunak ez molestatzeko eta lasai elkartzeko» joaten zirela azaldu du Eider Garcia (Antxo, 1994) taldekideak. Bertan gauak eman eta hurrengo egunean garbiketa brigadak antolatzen zituzten guneko zaborra garbitzeko.

Ekain Iribarren (Antxo, 1995) da herri mugimenduaren beste partaideetako bat. Hark argi du Papineko gazteen has-



Zabor bilketa, bazkaria eta jolasak egin zituzten larunbatean Papin Egunean. Eli del Pozo

tapenak azken Inauterietan eman zirela. «Ezer» antolatu ez izanak mugiarazi zuen haren kuadrilla. «Esan genuen: 'Gazte piloa ginen atzo, parrandarako gogoarekin, eta ez genuen ezer herrian'».

Hortik aurrera, kuadrilla bati eta beste-teari dei egin, eta zenbait bilera informal egiten hasi ziren, gazteen gogoei forma emateko. «Lehen bileran mundu guztia elkartu zen», gogorarazi du Montalvok, «uste dut lau bat ordu eman genituela bertan azkenean, afaldu eta guzti».

100dik gora laguneko bilkurak egitea «kaotikoa» iritzita, WhatsApp talde orokor bat sortu eta bakoitzaren nahi edo gustuen arabera multzokatu ziren (marketina, gaua, logistika, ur jolasak, ekintza txikiak...). Horrela antolatu dute sanferminetarako egitaraua, eta baita 150etik gora lagun bildu zituen Papin Eguna ere. Jaiekin ateratako dirua «urte osorako sostengu ekonomiko» izatea nahi dute, ohiko larunbat batean, kasu, «herriari emandakoa bueltatzeko». ✕



San Ferminetako menu berezia

Kontsultatu hemen:



MIMOS TABERNA

Gure Zumardia. 20110 Pasai Antxo. 943 24 90 23  @mimosantxo



Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14



PASAIA - LEZO

LIZEOA

Bizi Antxoko jaiak
EUSKARAZ

PROPOSAMENAK

HITZA



TXUPINAZOA

Hilaren 6an, 20:00etan, Gure Zuzmardian. Pasai Antxoko 2022ko Jaiak txupinazoarekin hasiko dira aurten ere. Suziria 20:00etan botako badute ere, jaien aurkezpen ekitaldia 19:30ean abiatuko da. Omenaldi berezia prestatu dute antxotarrek aurten.



**EGITARAU
OSOA
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda

HITZA



BERTSO SAIOA

Hilaren 9an, 19:00etan, Mimos tabernan. Alaia Martin, Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña eta Amets Arzallusek Mimos tabernak, Antxoko Jai Batzordearen laguntzaz antolaturiko San Fermi-netako 16. Bertso emanaldia eskainiko dute, Azoka kanpoko plazan.

HITZA



DANBORRADAK

Hiru danborrada: ostegunean, ostiralean eta larunbatean. Lehenengo danborrada haurrena izango da, hilaren 7an, 18:00etatik aurrera. Bigarrena helduen danborrada izango da, hilaren 8ko 00:00etan hasita. Azkena Basari elkar-tearena, hilaren 9ko 20:30ean.

HITZA



GINKANA HERRIKOIA

Hilaren 8an, 17:00etan, Gure Zuzmardian. Antxoko hiru gazte taldeek, Topaguneak, Pasai Antxoko Gazte Asanbladak eta Papineko Gazteriak, elkarlanean antolatu dituzte Gazte Egune-ko bazkariaren ondorengo jolasak, *Ginkana Tropikal Herrikoia* izenpean.



**ERASO SEXISTA,
HOMOFOBO,
XENOFOBO
ETA TRANSFORIK
GABEKO JAIK
NAHI DITUGU!**

PASAIKO UDALA